

LEKUONATARREN KONTAERA TRABUKOREN KANTAZ

Patziku PERURENA

...y así, fue hondísimo el desencanto que aquella vista le causara. Pero estimando que la verdad sin fantasías ha de ser la divisa y el distintivo de la cultura vasca, no vacila en exponer sus dudas e interrogantes a la consideración de los lectores.

Manuel de Lekuona
(*Obras Completas II*, 202)

Gillaume de Anelier fue apreciado como poeta pero acabó ahorcado por monedero falso. La impunidad y el éxito en su primera ocupación le hizo tal vez pensar que en la otra, que tanto se le parece, también triunfaría.

Imaginar la severidad que se aplica a los fraudes dinerarios empleada con los autores de falsedad literoide. Se acabaría la peste de la graforrea, menuda limpia... Es una ilusión. La lenidad para con el fraude literario es intocable. Los tasadores y peritos son los mayores falsificadores.

Eduardo Gil Bera (*Paisaje con fisuras*)

Juan Mariren arimari, kezkaren muga berotik

Oroimina besterik ez gaituk, ez, Juan Mari. Eta jakina, nik ere, neure kaxkarrean, gogoan zeuzkeat hire gauza on asko. Errota zahar maite hura, uraren ertzean, eta beste hainbat kanta eder, hire poesia landuan oinarrituak. Batez

ere, anaia Julen, Xabier Lete, Antton Valverde, eta Imanolen ahotan ederrago-
tuak. Hire poema liburu haiek: *Muga Beroak*, *Hilargiaren Eskolan*,
Mimodramak eta Ikonoak... Hire osaba On Manuelen *Aozko Literatura* xar-
magarri hura. Hire *Abozko Euskal Literatura* berritu hura...

Ongi gogoan gelditua zeukeat baita, Tolosako *Fronton* taberna haundian
elkartu gineneko ilunabar hura. Non bestela apaiz euskaldun batekin? Txoko
batean aritu gintuan, kararik kara, kontu kontari. Batez ere hi. Eta ni adi adi.
Kolare eta lumero popurri hura, Maria Pilar Lasarte zela bitarteko bidalia
nian, eta beste inork ez bezala eman hik erantzuna. Eta hik orduan egindako
zuzentze askoren artean, hauxe zeukeat gogoan:

Bat, bat, bat...
Parrandan ibili bart (bis)

Bai zaila dela herriak bereganatutako okerrak zuzentzen! Arrazoi ote
zuen nagok, bai, Baltasar Gracian argiak: “*La verdad es de pocos, pero el enga-
ño es tan común como vulgar*”. Eta hau ere, marka duk: orain zer eta, ni hire
okerrak zuzentzen! Eta gaitzerdi, dizipulu on baten sinalerik onena balitz.
Barkaidak atrebentzia¹:

Zure bertsoak ekarri zenizkidan/ nire iritzi eske.
Oraino erabakitzekeo nago/ zer nahiago dudan gorde:
Zurekiko adiskidantza ala/ egiarekiko fideltasuna.

Ederra poema. Baina, ezin ote liteke ederragotu? Badakik zein den nire
gaitza: adiskidetasuna fintzeko taigabe egia ttikien bila segitzea. Ezinezko
dela? Arriska nadin, bada ez bada.

GOIZUETAN BADA KANTA BAT...

Urteak daramazkit *Trabukoren kanta* honen surrean. Alderdi asko ditu,
eta denak liburu batean biltzeko asmoa nuke, luzaro gabe. Baina, ondoren
datorrena, alderdi horietan delikatuena eta morbosoen izan liteke, eta horre-
gatik dakarkit hona, euskaltzain finon iritzi eske.

Nire irudituan *Trabukoren kanta* jaso duten bi iturririk aberatsenak, eta
kasik bakarrak, R. M. Azkuerena eta Aita Donostiarena dira. Egia esan, bada,
beste hirugarren iturri bat ere: Oiartzun aldean On Manuel Lekuonaren ingu-

¹ Anjel Erro, *Eta Harkadian Ni*, 2002.

ruko itzala luzatuz, haren iloba Juan Mari Lekuonak geroztik osatu eta argitara eman duena. Baina, ez diot inongo traza onik hartzen hirugarren honi. Beste bi iturrietatik hartutako datuen gaineko adabaki politegiak baitira, nere idurikotz. Eta Lekuonatarren *pitxilan* horixe azaltzea izanen duzu hemengo nere ardaila guzia.

Deus baino lehen, ordea, hiru iturrion *faksimilak* erne ikustea komeni zaizu, azterlan honetan buruz aurrera sartu baino lehen. Eta, gero ere, lana irakurri ahalean, inolako zalantzarik sortu ezkerro, jo dezakezu *faksimil* hauetara noiz nahi. Ikus lan honen atzenean *faksimil* guziak.

AITA DONOSTIAREN KONTAERA, GUZIEN BURU

Hiru iturri horietan, inolako zalantzarik gabe, Aita Donostiarena da aberatsena eta fidagarriena. Ez baitut ikusten bertso bat bakarrik ere, aurrez dokumentu ofizialetan² esan denari kontra egiten dionik, eta horrez gainera, beste bi iturriek, aipatu ere egiten ez dituzten bi bertso eder baitakazki, orduko eskuizkribu zaharrekin arrunten ongi uztartzen direnak³:

*Goizuetako eskribau Jauna,
Eskerrik asko, barkatu:
Informaziu onak ttiguzu
Iruñerako prestatu.
Mundu honetan edo bestian
Biarko ttuzu pagatu.*

*Zorriak eta arkakusuak
arratontxuak nagusi!
Denbora batez erran biartzunak
au biar nula ikusi!
Zeruko Aita lagun nazazu
Ezin noyake igesi!*

Eta ezin atzendu, bertso horiek, «Bolaños» izengoitiko iheltsero aranzar bati Lekarotzen jasotakoak direla. Kontua hagitz ongi eta oso bertatik eza gutzen zuen baten⁴ kontraera, beraz.

² *Oiartzun* urtekaria, 1999, 22-32. orriak.

³ *Cancionero Vasco I*, 366-367. orriak. (Dokumentuak ezagutu ondoren, bertso hauei bie hor hemenka egindako ukituak nire esku.

⁴ 'Ituringo Arotzarena' ere honi jaso baitzion.

Juan Mari Lekuonak⁵ ere, besteengandik bereiz, «jakingarri» moduan aipatzen du bertso pare eder hau:

Hau da guretzat aipagarriena Aita Donostiaren bertso-sailean: bi bertso ba daudela guk ezagutzen ez ditugunak, ez Goizueta-Oiartzungo bertsoiek, ez Azkuek dakarzkitenak. Gehigarri hau jakingarria da guk darabilzkgun asmoetarako.

Baina, zer esan nahi ote du, “guk darabilzkgun asmoetarako”, esaldi enigmatiko horrekin Juan Marik? Ba ote dut sikologorik Oiartzun aldean, esaldi ilun hori argituko lidakenik?... Eta «guk» edergarri horren azpian nor ezkututzen ote da?...

OIARTZUNGOAK, NORENGANDIK JASOAK?

Xoragarriak dira On Manuel zenak gai honetaz “*Tesoros Legendarios*” hartan⁶ esaten dituenak. Hunkigarria da Juan Mari Lekuonaren “*Berdabio*” poema⁷. Aditzen dudan bakoitzean, liluratu egiten nau Sarobe Errekako (?) doinu ilun horrek, eta pozten naiz “*Oiartzungo Kantu Zaharrak*” diskoan⁸ Antton Valverderen ahotan dotore jaso izana, eta baita “*Oiartzungo Kantutegia*” eder horretan, *Berdabioren Kanta* bere letra eta doinu, jaso izana ere⁹.

Baina, baina... beste testigantza biziagorik eta fidagarriagorik inork ematen ez didan bitartean, ezin zait bihotzean sartu, ondoren aipatuko ditudan bertsoak eta doinu zoragarri hori, *Oiartzun* aldeko herritar xaloak gizaldiz gizaldi Berdabioren bertsoekin batera jasotakoak direnik. Ez, ezin zait sartu bihotzean.

OSABAREN JARRAIKIN ONAK, ILOBAK:

Zaharrenaz eta itzalik haundiena izan duenaz aurrera hasiko naiz. On Manuel Lekuonak gai honetaz jaso zituen kontu bakarrak, “*Tesoros*

⁵ *Oiartzun* urtekaria 1981, 18. orria.

⁶ *Idazlan Guztiak* 5, 182-84. orriak

⁷ *Mimodramak eta ikonoak*, 93. orria.

⁸ *Pagoarte-Elkarlanean* 1998, KD-505

⁹ *Oiartzungo Kantutegia*, 248-49. orriak.

Legendarios” hartan¹⁰ esandakoak ditu, eta harrez gain, nik dakidala behintzat, Oartzungo kantaera berririk, ez zuen sekulan inon aipatu, eta are gutxiago Azkueri eta Donostiari gain hartzeko asmoz, beste inolako kantaera berezirik inoren aurrean defenditzen saiatu. Osabaren huts hori betetzea, laster ikusiko duzunez, iloben gerozko lana izan baita.

On Manuel Lekuona zenak Berdabioren kontuaz jaso zituen bertso bakarrak¹¹, garbi ikusten da, Azkuek jasotakoan gainean egindako apaindura etxekotuak besterik ez direla. Nahi duenak konpara litzake, bertsoz bertso. On Manuelek berak ez baitu inon esaten, gainera, bereak Oartzungo bertso berri direnik. Laster ikusiko duzun aurreneko pitxi hori kenduta, beste lau bertsoak, Azkuerenak berberak baitira, nahiz ordenean atzekoz aurrera ipini eta, ukitu batzuk emanak izan.

Hasteko, “*ikusi ezpalu*” atzekoz aurrera “*ezpalu ikusi*” paratu. Gero, jakina, garbizaleentzat erdal kutsuko joskera zuen “*zeren ez naizen bakarra*” hura ere uxatu beharrekoa zen, “*bañan ezpainaz bakarra*” ipiniz. Eta “*izatu balu jarraikilerik Lesakan*” hura, berriz, poliki apaindua: “*jarraikin onikan izan balu*”. Egia da, On Manuelek euskal obra eta kanta franko, nolabaiteko *Gipuzkera Osatu* hartara moldatu zituela apropos, baina, ez ditzagun nahastu gauzak. Hor nabari baita bestelako intentziorik. Izanez ere, Azkueren lau bertsoen *gaintxuriketari*, boskarren pitxi hau sartu baitzion sarreran:

*Berdabiyoren xaldiyak
lau anakak ditu txuriyak.
Salto batian irago zuen
zazpi estatuko esiya;
beste bat igaro balu
seguru zuen biziya.*

Euskal literaturako tropo zaharra da bai, ‘*lau aztalak xuri*’ dituen zaldia-
ren kontu¹² hori, baina, ez Berdabiorena bezalako kasuetan. Orixek ere hala aipatzen du ezjakinean, “*Denok bat*” poeman¹³, On Manuelen eragin ongi interesatuari esker:

*Bi zaldi gazte, lau anakak zuri, izar zuri bekokia
Denok dakigu, alaxe zala, Berdabioren zaldia*

Hori ere aspaldiko formula literarioa da. Inork deus ez dakigunean, denok dakigula esatea. Ikusten, gero eta apainagotzen doakizun Berdabioren

¹⁰ *Idazlan Guztiak* 5, 182-84. orriak.

¹¹ *Idazlan Guztiak* 1, 480-81. orriak.

¹² Ikus nere *Harrizko pareta erdiurratuak*, 83. or.

¹³ *Idazlan Guztiak* I, 225. or.

zaldia? Oraingoan kopetan izar zuri eta guzi izatea eskatzen baitzuen, baskoioen poema guzizko izan behar zuenak. Horregatik jakin nahiko nuke nik, pasarte hori nola, noiz, eta nork txertatua den Euskaldunak poeman. Itsuak ere ikus baitezake burniziria haritzenbor buhurrian baino behartuagorik sartua dagoela “*Iru Bigaen Zerga*” ezaguneko leienda horren sarreran. Begira erne, eta entzun, horren ondotik bertan *Azken Olagizonaren Tirikitaukia* ere. On Manuelek sortua, ez? Jakina baita elkarren zordun¹⁴ zirela aspalditik.

Santa Feliziaren leiendako euskal koplatan ere ageri da lau aztalak xuri dituen zaldi mitiko hori, baina, hilketa tarteko delako, Bordegarairen kasuan bezalaxe. Berdabiorenean ordea, ez da halako tragediarik. Azken bi puntuak ere, usuario bizikoak dirudite, jakina:

*Salto batian irago zuen /zazpi estaduko esiya;
beste bat igaro balu / seguru zuen biziya.*

Nork esan, balada zaharretakoa ez denik? Harako “*zazpi pausotan irago zuen zortzi arkuko zubia*” delako tropo hura baitakar gogora. Hori guzia aski ez, badira hor hitz sorgin batzuk, holako girotan nik sekulan ikusi gabeak, ez bada Antonio Zavalak argitaratu zuen *Euskal Erromantzeak* liburu ederrean¹⁵:

*Jaun prebostaren zaldia
Lau hatzetan xuria,
Lau hatzetan xuria eta
gizon isuki zalia,
Harek pasa erazi dereit
Zazpi brasako lezia
Zazpi brasako lezia eta
Giza beteko hesia.*

Eta Xabier Kaltzakorta markinar eruditoak hola lotzen ditu bi kantarok¹⁶:

Zergatik agertzen da Manuel Lekuonaren bertsioan “zazpi estatutko esiya”? Eta “estatu” delako hori ez ote da kontaminazioz? (...) Eta Jaun prebostaren zaldiak ez ote ditu antzekotasun handiegiak Berdabioren zaldiarekin? Lau hatzetan du xuria. Zazpi brasako leizea saltatzen du. Zazpi estatuko hesiarekin du, beraz, zer ikusia.

Bai, zinez harrigarria elkar kontaminatze horren kointzidentzia. Izan ere, zer usuario izan dute ba gure baladetan, eta noiztik, **estatu** hitzak eta **gizabete-**

¹⁴ Ikus, *Orixe Gutunak (1917-1961)*, 32. or. e.a., *Utriusque Vasconiae*, 2006.

¹⁵ Auspoa 1998, 135. or.

¹⁶ Antonio Zavalaren Ohoretan, *Herri literaturaz gogoeta*, 127-58. orriak.

ak, batez ere elkarren sinonimo gisan? Esaidazue filologo maiteok, esan? Ez ote dira ba Landuchioren hiztegiak “*estado o altura de uno, estadia*” azaldu zenetik ateratako analogia hagitz berriak, *estatu* berdin *gizabete* delako apaindura horiek? Eta nori bereak ukatu gabe, zenbat eskusartze sotanapeko egin ote zaie geroztik Xahoren, Orixeren, edo On Manuelen beraren idazlanei?

Baina, natorren bertso zahar politegi horren azken puntura: “*beste bat igaro balu / seguru zuen biziya*”. Lehengo *estatua*, *esiya* eta *salto ikaragariya* aski ez, honek ere badu bere xarma. Gero hobeki ikusiko duzun bezala, ez baitu Berdabio *urkatu egin zutela* erakustea beste xederik. Ez zen ordea Berdabiorenean halako tragediarik, lekuonatarrek asmatutakoa besterik.

Eta beste gauza: hori da hori, Oiartzungo fonetismoak azaldu nahi larriya!: “*Berdabiyo, xalদিয়া, txuriya, esiya, biziya*”. Zer erakutsi nahi ote du grina horrek, nere filologo bihotzekoak? Ez du erakutsi nahiko, bada, oiartzuar agrafu peto baten ahotik jasoa dela pitxi hori? Gutxi fida, auzo nobleak. Eta begira, Osaba zenaren esku fin hori gordetzeko, zenbat luzatzen den gero iloba Juan Mari, behin eta berriz. Aurreneko lanean honela dio¹⁷:

Okilegiko eta Sarobe erreka bertsioak berdintsuak dira. Baina badago beste desberdintasun bat sakonagoa. Osaba M. Lekuonak Okilegiko bertsioan lehendabizi aipatzen duen bertsoa, “Berdabiyoko xalদিয়াক” esanez hasten dena. Bertso honek ohar hauek sorrarazten dizkit: batetik, neurri desberdina duela beste gainerako bertsoekin konparatzen badugu; bestetik, berriz, bi alditan gertatu zait bertso hori Oiartzunen jasotzea; eta bietan ez zidaten kantatu, esan baizik, eta gainerako bertsiorik aipatu gabe esan zidaten gainera.

Behin aski ez, bi alditan jaso omen zuela, gainera, zu! Harrapazazu!... Alegia: nahiz Oiartzunen inork ez jakin, Bordegarairen hartatik moldatu eta sartu omen zuela Osabak, eta ilobak defenditu egin nahi omen duela, nola edo hala. Hori duzu nere autopsia ttiki honen fruitua. Eta, nola ez, berriz ere bigarren lanean, oraindik nabariagoa dizu hil ala biziko *txerto arrotz* horrekiko kezka¹⁸:

Bertso zaharrok (Berdabiorenak, alegia), guk hain gogoko ditugunok, lehenago ere aipatu izan ditugu aldizkari honetan, 1981eko alean. Orduz geroztik, xehetasun berriak aurkitu ditugu, garrantzizkoak direnak: (...) abozko tradizioak gauza berak esaten dituela Berdabiori buruz eta Bortegarairi buruz. Eta kidesan honek argibide onak ematen dituela Berdabioren zenbait kontu Bordegarairi esker argitzea, eta alderantziz.

¹⁷ Oiartzun urtekaria 1981, 18. orria.

¹⁸ Oiartzun urtekaria 1986, 17. orria.

Hona hemen bi (...) aldaerak:

*Berdabioren xaldiyak
lau hankak ditu txuriak*

*Bortegarairen zaldiak
lau anak ditu txuriak*

Estrofa honen jatorria ezagutzeko, sustrai hauek leudeke, noski: edo Bortegarairena Berdabiorenetik hartua da, edo alderantziz, edo eta bata eta bestea hirugarren batetik. Eta gu oraingoz hirugarren posibilitate honen aldekoak gara.

Ni ordea, inolako zalantzarik gabe, “edo alderantziz” horren aldekoa nauzu. Nola ez dute bada elkarren antzik izanen, bi arketipo literario horiek? Hain xuxen ere, Bordegarairenetik hartu eta Manuel Lekuonak beregisa moldaturik sartuak izanik Berdabiorenean? Eta horren aztarna nabariak sinالاتzen ari naiz, bata bestearen ondotik. Baina, jakina, berrizkoan ere, alderantziz dio Juan Marik:

Bi alditan gertatu zitzaigula (sic)¹⁹ Oiartzunen bertso hori jasotzea, (Berdabioren xaldia-rena alegia), eta bietan ez zidatela kantuz eman, hitzez baizik, eta gainerako bertsoen aipamenik ere egin gabe.

Anaia Andoni Lekuonak 1997ko martxoaren lehenean Hendaiatik idatzi zidan gutun batean, honela dio, berriz ere, ditxosozko pitxiaz:

neurria ere desberdina duenez, beste bertso batzuetatik hartua dirudi.

Zertan gelditzen gara orduan? Bi aldiz jaso du Juan Marik? Edo *beste bertso batzuetatik* hartua Andonik? Eta iturria, Mitxelena bertsolariak hain maite zuen harkaitzeko iturria? Ez osabak, ez ilobek, ez baitute aipatzen iturrik. Ez den tokitik, nola ba?... Bortegarairen²⁰ xaldi hankaxuria baitabil hor, trakatan trakatan!

Eta, ez *lau hankak xuri* dituen zaldi kontu hori bakarra, lehen ikusixe duzun bezala, *urteak egun hainbat bertso* ipini zituelako kontua²¹, eta *urkatu* zutelakoa ere, Bortegarairen hartatik hartuak baitira denak, eta disimulo ederean Berdabiorenera ekarriak.

¹⁹ Lehen “zidaten” erabili du. Apaiz euskaldunak hagitz trebeak baitira *ni* ezindu guziak *gu* salatari horren paradisura ekartzen.

²⁰ *Euskal baladak* II, 61. orria. Hordago, 1983.

²¹ Nik eskura dudan edizioa 1978koa da, eta ez dakit honetan Juan Marik zenbateko parthartzea izan zuen, baina, nik dakidan bakarra da, Berdabioren kontua aipatzen den aldiro, ohar hau eransten zaiola ondotik. Benito Alduntzinbordakoa aipatu aldiro ere, kontu bera eransten zaio beti, haren ahotik jaso a bailitzan har dezagun edo?...

OSABA ILOBEN ZUBI, 1967KO GRABAZIOA:

Aita Donostia eta batez ere R.M.Azkueganako espaz, On Manuel Lekuonak etxean egindako *zirujia estetiko* hura, inork irentsiko ez zuela ohartu, eta ahaztuxe ondoren, berriz atzera, beste hogeitamar urtetik goiti isilik irago ondoan, “*Ez dok hamairu*” famatu haren inguruan euskal kantari berrien pizkundera sortzean, badirudi espaldi berri batek jo zituela lekuonatarrak.

Kontua da, Berdabioren kontu eta kanta honetaz, Mikel Laboak 1966an Azkuek jasotako kantaerak hauspetik atera zituen arte, ez dela inon nabari beste kontrapunturik, ez Oiartzunen ez Goizuetan, ez bestetan. Eta, hain juxtu, ondore hartantxe, 1967an, jasoko zuen Usandizaga disketxeak, Lekuonatarren ahotik, *Berdabiyo*-ren doinu berria. Errenteriko Eresbil zorionekoan txukun jasorik daukate, eta honela dio hitzez hitz:

*Diru paltsua egiten zuala ta, iltzeko sententziya eman diyote
Goizuetako lapurrari. Urte bete biziya luzatu zioten, egunean bertso
bat jartzekotan. Ayetakoak emen dijoaztenak:*

*Nere andriak ekarri zuen/ Aranaztikan dotia.
Obe zukian ikusi ez balu/ Berdabiyoko atia
Gaur etzukian ark idukiko/ dadukan pesalumbria*

*Berdabioko semia naiz ta/ adios auzo nobliak.
Pena aundirik ez baitu utziko/ ni emendikan joatiak
Negarra pranko egingo baitu/ nere emazte tristiak*

*Neriak ez nau ainbeste oroitzen/ baña enaiz ni bakarra
Azitzekuak an utzi ditut/ bi seme ta iru alaba
Jaun zerukuak adi bezala/ oien amaren negarra.*

Erne bigarren bertso horri. Zer modu gaizto da hori, bertsoa hasteko?: “*Berdabioko semia naiz ta, adios auzo nobliak*”. Gainera, nori, nola, esan Berdabiok kartzelatik “*adios auzo nobliak*” delako hori? Ba al doa ba inora? Beraz, nondik norakoa izan liteke “*ni hemendikan joatiak*” hori? Lekuonaterren lilura ilunak asmatu-rik *urkaberatze* hura nola edo hala defendatu beharrak sorrarazia ez bada?...

Begira, hogeita hamar urte gerozago, non²² ageri diren urkatuaren “agur”²³ eta “auzo” kontu berberak, obsesioz defenditu behar larrian:

²² *Mimodramak eta ikonoak*, Erein 1990, 3. or.

²³ Bertsoak: ‘*adio*’, Poemak: ‘*agur*’, kultuago baita ba.

*Urkatuaren agurrak, kantu eta ele,
giharrenik ukitzen zuen bihotza,
(...)
Herio zigorrak penatua zuen auzoa.*

Eta, hara nola ageri ziren, “adio” eta “urkabe” kontu horiek Bortegarairen²⁴ hartan:

*Kanpo jendia datorrenian
agur eitie usu de.
Agur eitia usu bai, baia
neuregandi bajadu de
Bordegarairen semiak
ai ze fortuna bagiak
urkamendiko oiñean dago
hango laugarren semia (...)*

Nork pentsa,ordea, lekuonatarren *lilura tragikoa*, Bortegarairen hortatik ekarria izan daitekeenik Berdabioko sukaldera? Gainera, ahozko literaturan lekuonatarrek erakutsi duten sentiberatasun eta maisutasun gorenarekin, nola ba?...

Baina, lekuonatarren xede gordea ikusteko, hiru bertso horiek baino salartariago, bertsoak kantatu aurretik, 1967ko diskoan Eresbilen jasoak dauden lau hitz mutturrok dira:

*Diru paltsua egiten zuala ta, iltzeko sententziya eman diyote
Goizuetako lapurrari. Urte bete bizia luzatu ziyoten, egunean bertso
bat jartzekotan. Ayetakoak emen dijoaztenak.*

Eta handik hogeit urtera, 1987an, oraindik kontu honekin zebilen gure Juan San Martin, hori bai, norbaitek albotik ongi xaxatua²⁵:

*Zazpiak badu zerbait berezia. (...) Juan Mari Lekuonak aditzera
eman zidan euskal kanta zaharretan badagoela horren aztarnarik;
horren adibideetako bat **Berdabioren kantako lehen bertsoa dela.**
(Xaldiarena alegia) (...) Baina **misteriotsuena** Juan Marik aipatu zidan
Berdabiorena da. Tradizioak dioenez ontzako urreak faltsifikatzen
zituen Berdabiok, eta horregatik eduki zuten Iruñeko presondegian,
non egin zuen **hirurehun eta hirurogeitabost bertso**ko kanta, egunero
bat osatuz, Manuel Lekuonak zioenez.*

²⁴ *Euskal baladak* II, 60-61. orriak. Hordago, 1983.

²⁵ *Euskera* XXXIII (2. aldia), 313-314. orriak.

Horra osabak “*Tesoros legendarios*” hartan²⁶ esandakoak, nola pasa diren ilobaren ahotara, gero Oiartzungo kantaera herritar berria omen (?) denekoa sendotzera etor daitezzen, diximulo ederrean:

Berdabio, el habitante del caserío fue falsificador de moneda. (...) hubo de ser aprehendido y juzgado por los Tribunales de Pamplona, donde sufrió cárcel mucho tiempo, la leyenda dice que un año exacto, durante el cual, por cierto, compuso un poema en vasco, en tantas estrofas como días tiene el año.

Eta, esan bezala, kontu politegi honen iturri bakarra, Ana Juanixe eta Apez beltza izeneko baladetan ageri den testuingurua²¹ besterik ez zen:

*Urthiak zonbat egun tu
Hemezortzitan hogoi tu
Borthegarai gazteño horrek
hainbertze pertsu eman tu.*

Eta begira nola disimulatzen dituen gero, Juan Marik, begien bistako iturri horiek²⁷:

*Berdabioren eta Bortegarairen inguruko berrietan, bada beste osagai bat:
bai batak eta bai besteak, urteak egun hainbat bertso ipini zituela.*

Urte beteko biziaren eta urkaberatzearen kontu ilun hori baitzuten Lekuonatarrek, Azkuek eta Donostiak inon aipatzen ez zuten berrikuntza hunkigarri moduan nabarmendu nahi zutena. Behin eta berriz, lelo berbera nabarmendu izan baitu Juan Marik ere, alditik aldira kontua nabarmen apainduz, eta atzenerako kasik inork ere ez sinesteraino gizenduz²⁸:

Dena den, hiltzeko sententzia eman zioten. Hiltzera epaitu zutenean, Berdabiok urte beteko bizia eskatu omen zuen; bere bizitza kontatuz, egunean bertso bat egingo zuela. Eta hala eman omen zioten: urte beteko bizia. Urte honetan zehar egindako bertsoak omen dira hauek.

Beraz, 365 bertso²⁹ edo behar zuten izan. Eta bertso penagarriak omen ziren. Inork ere ez zituen bertso horiek buruz ikasi, ijito batek ezik.

²⁶ Idazlan Guztiak 5, 183. orria.

²⁷ Ikus *Oiartzun* urtekaria 1986, 17. orria.

²⁸ Ikus *Oiartzun* urtekaria 1981, 19. orria. Horrez gainera, berriz ere, orri bereko AZKENA sailean, hauxe esaten baitu: “...batez ere, azpimarratu beharra dago, sail oso berezi eta jakingarri batean duela bere lekua (Berdabiok) : hiltzeko sententzia hartu ondoren, beren sentipenen berri bertsoz eman digutenen sailean”.

²⁹ Hori 1981an esandakoa du, berez *tropoa* dena testualki hartuz.

Baina, 1986an zuzenduxe zuen: “asko zirela bertsoak” esanez.

Eta ijito hau Berdabioren bertsoak tabernan kantatzen ari zela, penaz lebertuta bil omen zen.

Nork ez sumatu, ordea, haize ufada haundisko horiek? Etxerik sendoena ere dardarituko lukete eta!... Horra hor, osabaren operazio estetikoak, ederki ikasi eta apainagotuak, ilobaren ahotan.

Hala eta guzi, ilobaren ‘*etxeko patente berria*’ merkaturatzen hasteko lehen pausoa besterik ez zen izanen hori. Oraindik politagoa baita bigarren pausoa.

ETXEKO PATENTEA NOLA HERRITARTU

Honela hasten du Juan Marik, bere lehenbiziko³⁰ idazlan argitaratua, “Berdabioren Bertsoak” izenburua ipiniz:

(...) Istorioak alde batera utziz, aurten Berdabioren bertsoak hartu ditut gai. Kanta horien egilea nor zen aztarrenak badira; eta berri jakingarria da hau bertsozaleentzat. Bestalde, berri hori dela-eta, une egokia da hauxe bertso sorta osoa biltzeko, hango eta hemengo iturriez baliatuz.

(...) Orain dela ilabete batzuk, Goizuetako bikarioak, Don Bizente Hernandorenak, oharkizun txiki bat bidali zidan eskuz esku, Berdabio nor zitekeen eta noizkoa zitekeen adieraziz. Ez daukat hemen xehetasun gehiegi ematerik, Hernandorena jaunak hasi duen azterketa buka dezan arte. Hala ere, gure gaurko eginbiderako, bi argibide emango ditut: bata, Migel Antonio Zugarramurdi zela bertso horien egilea; eta bestea, hemeretzigarren gizaldikoa zela, 1810eko urtarrilaren 19an jaioa.(...)

Beraz, zenbait berri ematera noakizue, eta Berdabioren bertso-sorta osoago bat eskeintzera. (...) Kantutegi ezagunetan eman diren bertsoak ez dira gure inguru-girokoak izan. (...) Guk Oiartzunen bi bertσιο baditugu oraingoz.

Helburua, oroit, «guk darabilzkigun asmoetarako» helburua, begien bistakoa da hor, hasiera hasieratik: “*une egokia da hauxe bertso sorta osoa biltzeko. Berdabioren bertso-sorta osoago bat eskeintzera noakizue. Lehengo bertsoak ez dira gure inguru-girokoak izan. Guk Oiartzunen bi bertσιο baditugu*”. Intentzio nabaria darie esaldi horiei: beste kantaerak, Azkuerenak eta

³⁰ Idem.

Donostiarenak, urrutikoak dira, guk baditugu bi kantaera osoagoak Oartzunen bertakoak. Eta oraintxe da une egokia...

Zergatik, ordea, *une egokia*? Beste deusen lokarrik gabe, Migel Antonio Zugarramurdi 1810ean Elaman jaioa zela badakigulako? Ez geunden askoren beharrean, alajainkoa, “etxeko patente berria” plazaratzeko, ez geundenez askoren beharrean! Don Bixentek berak esana baitakit, pasarte horren berri jakitean:

Gizon honek sartu dit ederra! Nondik atera behar dut nik orain, Miel Antonio hura dela kantako ‘Berdabio’, ni neroni Trabuko zelakoan galduta nenbilen eta?...

Kontua da, bi kantaera ustez osatuago horietan, OKILEGIKO eta SAROBE-ERREKAKO deiturikoetan, ez dela inon ageri lehendik R. M. Azkuek eta Aita Donostiak jasotakoaz aparteko ekarpen berririk, eta are gutxiago herri usuario bizirik jasotakorik. Hori bai: lehenaz gain, molde gaiztoko beste bertso batek jo du, berrizkoan ere, nere belarriko giharrik minberena³¹:

*Martin Joxepe Aranaztarra
zegoen gizon prestua.
Diximuluan botatzen zuen
aldiyan bere puntua,
aber lenago ote nekien
moldetariyan kontua.*

Begira, begira erne, oraindik *moldeko* usain bero beroa darion txanpon arrotz horri. Horretan ere, bistan da, leienda hornitu beharrak sortu duela bertsoa. Oraingoan, Azkueren eta Donostiaren kontaerek ez bezala, *diru faltsu kontua* zen, nolabait bertsoan sartu behartakoa. Eta horratx, sartu ere, zeinen poliki sartu den, atzeko atetik, ixil mixilka!...

Andoni Lekuonak bere gutunean esaten didan honi erreparatzea aski: “*Puntu aipagarriak: 1) monetaren berririk ez dutela ematen bertsoek, Sarobe Errekakoek izan ezik, beraz ahozko informazioa dela Azkuek dioena*”. Beraz, Lekuonatarrena ez ote da ahozkoa? Klaro, klaro!... baina nork ipini du bertso honetan, Azkuek hizketa laxoan emandako *ahozko informazio* hura? Eta zergatik?...

Eta «*moldetariya*» delako hitz giltzarri hori, nork ezagutzen ote zuen Sarobe-Errekako bertsozale oartzuar agrafu bixi haien artean? Nere ustez, hitz «arrotz» hori, gai honek liluratua zeukanen batek bestek ezin baitzezakeen «moldetu»; eta sortzaile horrek, inondik ere, lojika filologiko puxka duena

³¹ Idem.

behar du izan, eta ez harritu batere, sotana erantzi bezain pronto korbata jan-tzi zuen poeta euskaltzainen bat izatea ere.

Esandako guziaz gainera, Berdabiok kartzelan zegoen egoeran egonik, eta beste erremediorik gabe defenditzen zuena defenditzen zuelarik³²: *“que en lo que se les imputa no tienen culpa alguna”*, bere bertsoetan jainkoagatik ere aipatuko ez zukeen kontua, hain juxtu, *“moldetariyan kontu”* horixe bai-tzen. Ahoz jasotako kontu guziek ere, horixe errepikatzen baitute: *“sekulan ez zuela aitortu izandu diru faltsua egiten zuenik”*. Non jesusetik azaldu da, orduan, *“moldetariyan kontu”* hori, horren apain bertsoatarua?...

Eta nondik atera ote da, *“Martin Joxepe aranaztar”* hori? Goizuetako bikario zenak, Don Bixente Hernandorenak, gai honen aztarren bila hasi zenean, Juan Mari Lekuonari utzitako jaiotz agirian³³ azaltzen da *“Martin Jose”* izena, behin eta berriz. Begira, begira nola:

(...) hijo legitimo de Martín José de Zugarramurdi, natural de la de Sumbilla, y María Ignacia Juana de Esnao, su muger, natural de Oyarzun, residentes en Elama, muchos años ha, siendo padrinos Martín José de Echeverría, natural de ésta, y María Josefa de Michelena, natural de Oyarzun, los que le dieron por nombre Miguel Antonio. (...)

Hori ote da, gero paper ofizialetan azalduko zelakoan, bertso berria apaintzera etorri den *«Martin Joxepe»* xarmagarria? Ni baiezkotan nago, etsi etsian: hori izan zela poeta finaren azken argialdia, jende on sinesberak, duda izpirik ere egin gabe, bertsoa herriaren ahotik jasotakotzat irents zezan.

Eta bosgarren misterio honekin bukatzeko, beste galde ttiki bat datorkit burura: bere bakar arrotzean oraindik dirdir egiten duen bertso eder hau, zergatik ez ote zuen sartu Juan Mari Lekuonak 1967an egindako Usandizaga disketxeko grabazio eder hartan? Esatea nahi nik? Oraindik *patentatu gabea* omen zeukalakotz.

Baina, bertso oso nabarmen honetaz gainera, Sarobe Errekako kantaera horretan, nabari nabariak dira, beste zenbait pasartetan, ixilpeko esku xuri horrek utzi dituen arrastoak. Nondik atera da, esate bateko, *“Goizutan bada gizon gaixto bat”* hori?. Hori ere Goizuetako motiko gaizto honek, esan behar al du? Ai, hau pena eta pesalonbrea, nerea! Begira zer dioen³⁴ R.M.Azkuek:

³² Nafarroako Artxibo Handia, *Sententziak*, erref. zkia.: 165313

Erdal erref. zaharra: n° 474, esno. *Cildoz, faxo 2, oxas 11*

³³ Miguel Antonio Zugarramurdi Esnaoren jaiotz agiria, 1810-I- 20.

³⁴ *Cancionero Popular Vasco* I, 510. orria. Euskaltzaindia, 1999.

En el Cancionero Selecto, pag. 3, se puso “Goizuetan da gizon zakar bat” en vez de “Goizutan bada gizon bat”, que es verso corto. También se corrigieron biotza paltso por biotza gaizto (...).

Bai horixe! Bere xuriketa lan isilean aritu dena, erne ibili da horretan ere. Eta, bidenabar esan, horra non ikasi zituen On Manuelek bere martingala tti-kiak, (*“También se corrigieron biotza paltso por biotza gaizto, y sekula por bein ere, como también dilijentziak por asimasiak”*), gero bere kantaera oiartzuarra sortzeko. Zenbat holako apezlan xuri ote da gure kanta xaharretan! Jainkoak ba al daki Juan Mari?...

Baina, nik adierazi nahi dizudan guzia oraindik hobeki ikusi nahi baduzu, begira erne Andoni Lekuonak 1997ko martxoaren lehenean Hendaiaitik idatzi zidan gutun hagitz interesgarri honek dioenari:

Guk erabiltzen ditugun bertsioak, Juan Marik “Oiartzun” urtekarian argitara zituen. Familian (amarengandik) ikasi eta buruz dakiguna, Juan Marik “Sarobe Errekakoa” bezala bataiatu zuena da. Bestea, osaba Martinek (Lekuona) Okilegin Benito Alduntzin Bordakoari jasotakoa da. Aita Donostiarena eta Azkuenera ezagutzen dituzula pentsatzen dut? Zein da jatorrena? Zein da osoena? Zeinek eta nola erabaki?

Hori da kezka gizonarena, hori! *Zein da jatorrena? Zein da osoena? Zeinek eta nola erabaki?* Ba al zuen ba inork, erabaki beharrik? Edo osoena eta jatorrena zein den erakutsi beharrik? Bai, badirudi baietz, badela norbait, isilpeko bide luzean, nola edo hala, hori erakutsi nahian ibili denik. Bai, hori zela dirudi lan honen sarreran aipatu dizudan *lapsus ttikia* edo «azpiasma». Baina, ongi argitzeko asko falta du oraindik.

SAROB EREKAKO DOINU ILUNA

Horra beste miraria! Azkuek jasotako kantaerak 1966an Mikel Laboak hauspetik atera zituen arte, ez da inon nabari beste kontrapunturik, ez Oiartzunen ez Goizuetan, ez bestetan, eta hain juxtu ondore hartantxe, 1967an, jasoko zuen Usandizaga disketxeak Oiartzungo doinu berria. Zergatik, ordea, juxtu orduantxe? Begien bistan dago zergatik: kantak gertalekuz bertanekoa zuen bertsioak, On Manuelek eta ilobek Oiartzunen jasotakoak, alegia, Mikel Laboak plazaratu berri zuen Azkueren bertsioari gain hartzeko grina biziagatik. Eta Lekuonatarren orduko eraginaz irudipen bat egiteko, honatx Joxemari Iriondoren hitzak³⁵:

³⁵ *Basarri I, Bat-batean*, Auspoa 296, 2006 urtea, 294. orrian.

1967ko apirilaren 23an, don Manuel Lekuonaren omenezko bertso-jaialdia antolatatu zuten Oiartzunen, meza eman zueneko berrogeita hamargarren urteurrena zela-eta. Egun hartako meza nagusia Don Manuelen hiru ilobek eman zuten: Juan Mari, Andoni eta Julen Lekuonak, alegia. Sermoia, berriz, aita Gaztelumendi jesulagun oiartzuarrak, sutsu, hala ere (...). Basarrik obizko hitzaldi errimatua egin zuen bazkalodoan, Lekuona zaharraren gorantz.

Ederki. Baina nondik atera zuen Juan Marik doinu triste hura? Amaren aldeko usariotik? Baliteke, baliteke... Agustín Mendizabalek³⁶ egina dizu bere azterketa, liburu honetan bertan zuzendu eta hornitu dizuna, baina, oraingotan ere lekuonatarren ukituak ukatze aldera jo dizu. Ikus nola bukatzen duen Juan Marik, bere aurreneko artikulua³⁷:

gai honek beste zenbait alderdi interesgarri ere baditu: literatur alderdia, musika alderdia, eta antzeko bertso-saioekin egin daitekeen konparaketa. (...).

Eta jakina, Berdabiorena multzo horretan sartzeko, hain juxtu ere, multzo horretatik bertatik hartutako *literatur ukituak* han hemenka emanez Oiartzungo bertsoak diximulo ederrean beren *zirujia estetikoa* eginda zetozenez, hurrengo azterlanetan, alde zuzetik prestatu bezain *apain* gertatuko ziren kontuak: *literatur alderdia, musika alderdia...*

Hona beste arrasto batzuk, berriz ere, Andoni Lekuonaren gutunetik hartuak: “*Ez ahaztu, nola nahi ere, musikaz hitzegiterakoan, Iparraldeko kutsua aitatu dugula*”. Eta ez ahaztu, Andoni Lekuona ere, 1963az geroztik soziologia ikasi bidenabar, Bidasoaz harantz honunza zerbait ibilia dela letrak eta musikak etxekotze lanetan. Ikus honetaz, batez ere, “*Euskal Kantagintzan urrats berri*” izeneko lanean³⁸ ematen dituen argitasunak, eskeintza beretik hasita: “*Etxeko guztiei: Aita, Ama, Arreba, Anaiak, Emaztea...ukituak sartzen lagundu didatelako*”. Berdabioren bertso hauetan ere, *ukitu* guziak etxeko usariokoak direla dirudi.

Erne, aipatu gutuneko musika klase honi. Berriz ere, beste guziak akastuak dira, edo urrutikoak, edo arraroak:

Aita Donostiak jasotakoa asko bereixten da beste bietatik, batez ere modu aldetik (mayor) eta baitare ritmo aldetik. Nahiko harrigarria egiten zait tragedi bat kantatzeko era hau. Azkuek jasotakoa Laboagandik ikasi genduen, eta Sarobe Errekakoa kantatzen genduenentzat nahiko arraroa gertatu zitzaigun. Gureak, berriz,

³⁶ Ikus OIARTZUN urtekaria 1991, 62-64 orriak

³⁷ Ikus OIARTZUN urtekaria 1981, 19. orria.

³⁸ EGAN 1998-1/2ko gehigarria, 121-167 orriak.

osotasun bat eskaintzen du ritmo eta modu-kontuan hasi eta buka, eta sentimentu haundiko kantua da.

Aditzen, Andoniren hitzen azpiko musika sikologiko hori? Bai, besteak ez bezalako “osotasuna” erakutsi nahi hori, “crescendo” baten gisara heldu zaigu azkenean belarri zuloetara, eta hortxe jo digu galdurra oharkabean Andonik. Berak eman baitio erantzuna, gutunaren hasieran egin duen galderari: “*Zein da jatorrena? Zein da osoena? Zeinek eta nola erabaki?*”. Horra ederki erabakia, goiko pasarte horren akaberan: “*Gureak, berriz, osotasun bat eskaintzen du, eta sentimentu haundiko kantua da*”. Osaba Manuelek behiala etxealde hasi zuen ixilpeko xuriketa lanak, diximulu ederrean, goiak joxe dituela dirudi.

Juan Marik, hala dio kanta honetaz behin eta berriz³⁹: “*bertan erabilia, bertan gordea, bai testua eta bai doinua*”. Zergatik, berriz ere, gauzak horrenbeste “*bertakotu*” behar susmagarri hori? Oiartzungo Kantutegi guzian ba ote du beste kantarik, horren serio eta zorrotz, behin eta berriz “*bertakotu*” nahi duenik? Ezetz esanen nuke nik. Ez baitiot beste inon nabaritu inosistentzia horrenik: “*bertan erabilia, bertan gordea, bai testua eta bai doinua*”. Hori da hori, egia erakutsi nahia. Eta nerea ironia hutsa dela uste baduzu, emaiozu ikusaldi bat *Oiartzungo Kantutegi* osoari.

Beste alderdi nabariki susmagarria ere badu “*bertakotu*” behar honek. Gogora dezagun lehentxeago Andoni Lekuonak bere gutunean *Oiartzungo* bi bertsioez zioena:

Familian (amarengandik) ikasi eta buruz dakiguna, Juan Marik “Sarobe Errekakoa” bezala bataiatu zuena da. Bestea, osaba Martinek (Lekuona) Okillegin Benito Alduntzin Bordakoari jasotakoa.

Lehen esanaz gain, zer da *bataio kontu* xeble hori? Zergatik bi lekuizen, *Okillegi* eta *Sarobe Erreka*, bi kantaera horiek bataiatzeko? Aski ote dira ba, bi toponimo eder, kantaera horien iturri iluna argitzeko? Ez al dira ba kantuak eta kontuak, batez ere, norbaiten ahotik noizbait jasoak izaten? Orduan?... Egia da On Manuelek aipatzen duela Benito hori, behin baino gehiagotan ere⁴⁰, *Berdabioren* bertsoak ba omen zekizkiela esanez:

Me decía hace poco cierta persona. Yo conozco uno muy bueno: Benito, el bordari de Alduntzinborda (...) cantando versos (...) del monedero falso de Berdabio.

Baina gero bertso horienik jaso zionik ez du inon aitortzen, ez On Manuel berak, ez beste inork, nola *Oiartzun* hala *Goizueta* aldean.

³⁹ *Oiartzungo Kantutegia*, 1999, 249. orria.

⁴⁰ *Ikus Idazlan Guztiak I*, 214, 294, 579. orriak.

ESPA GORDE GUZIEN AZKEN TXIRIKORDA

Berenez, R. M. Azkue eta Aita Donostia, herriaren ahotik jasotako aleunka kanta, xalo eta bixi gordetzen besterik ez dira saiatu, beren eskusartze, hutssegite, eta guzi. Ez dute ordea, halako esparik nabari. Eta itsuak ere ikus lezake, On Manuel Lekuonak ez bezalako diziplina eta jakinduria erakutsi dutela kanta kontuotan. Horrez gainera, edo hobeki esan, bi maisuekiko espa eta gutiuste horrexegatik beragatik, lekuonatarren ixilpeko xurilan honi, bestelako krabelin usaina dario: “*Guk erabiltzen ditugun bertsioak... Etxean kantatzen dugun bertsioak... Familian ikasi eta buruz dakiguna... Gureak, berriz, osotasun bat eskeintzen du*”. Gaintxuriketa fineko maisulan honetan, dena “etxekoa” da, dena “gurea” da.

Honatx operazio kirurjiko sofistikatu honen laburpen kronologikoa, alde aldera: 1931 baino lehen: Azkuen bertsioan egindako *dermozirujia* axalekoari xaldi aztaltxuriaren *injerto* sakona egin; 1967an: osabaren *operazioak* lagun, doinu *hunkigarria* merkatura atera, zer gerta ere; 1981-1986an: merkaturako espak zientzia literarioz xuritutuz, Oiartzungo bi kantaera berriren *estetika* asmatua polikiro plazaratu; 1990an Berdabio poema mimo eta drama haundiz ikono bihurtu; 1996an: hogeitamar urte oharkabean pasatako ‘*doinu hunkigarria*’ berriro nabarmendu eta apaindu; eta azkenik ahalegin guziak bateratuz 1998an: hainbeste kostatako xedea haundikiro ospatuz, Oiartzungo Kantu Zaharrak diskoan grabatu etxeko ‘*patente*’ findu hunkigarria; berriz atzera 1999an, Oiartzungo Kantutegian, poz ikaragarritz “*bertan erabilia, bertan jaso, bai testua eta bai doinua*” ironia urrezkotan seilatzeko.

Itsua ez denak, ikus lezake *operazio kirurjiko* luze eta konplikatu hori, obsesio zahar baten moduan nola joan den mila aldetatik gorpuzten. Eta hagitx ongi ulertzeko da guzia. Lekuonatarrek hurbiletik ukitzen baitzituen gai honek, eta Azkuek eta Aita Donostiak ez bezalako urrezko ukitua eman beharra zeukaten, ofizioiko espa⁴¹ eta ohore gose hutsagatik besterik ez bazen ere; baina, funtsean, haiek herri xaloagandik bildutakoa, gai honekin deus ikustekorik ez duten asmazio apainekin nahastu besterik ez dute egin.

Eta ez pentsa asmazioak bukatu zirenik, ez. Eskola misterioitsu horrek aurrera segitzen baitu gero eta asmazio apainagoz kontuak areago itsusten. Begira bestela, orain berriro atera den pitxi honi⁴²:

*Hainbaten iritxiz, Berdabioren istorioak antzekotasun haundia du
“mila eta bat gau” liburuko historiarekin; izan ere, liburu horretan,*

⁴¹ Auzoan bertako pitxia, berek ez eta bestek jaso izanagatik, alegia.

⁴² Xavier Susperregi, *Oiartzun haraneko kondairak*, 106-8. orriak, 2006.

Edo eta haien kopia diren Goizuetako *Xapo* 6. zenbakian, 18-19. orriak.

protagonista den Scherezadak egiten duen bezalaxe Berdabiok ere egunero bertso bat idazten baitu bizitza luzatu nahian.

Horixe bakarra falta genuen orain: lehen Bortegarairen *tropo* hura gaizki interpretatu eta Berdabiori aplikatzea aski ez, “*mila eta bat gau*” ezagun haiekin nahaste kontua! Hori da hori, grina, etxeko patentea unibertsaltzeko!

EPILOGO MODUAN, KEZKAREN MUGA BERORA ITZULIZ

Egia esateko, Pierre Lafittek apainduriko *sasibalada* batzuek Xabier Kaltzakortak egindako azterlana⁴³ leitu nuenerako, isilpean zebilen *autopsia* hau, eta seguru naiz, satorbidez Kaltzakortan eskura ere iritxi zela; geroztik argitara zuen artikuluan⁴⁴ ageri den “gertaleku” hitza eta beste deitaile asko baititut horren lekuko. Eta badakit, noski, honelako gehiago ere egonen dela gordean. Nik behintzat badut esperantza, Lafitte edo Lekuona, ardi galdu gisan, bakarka geldituko ez direna. Gauza jakina baita apaizak, nonahiko eta nolannahiko ere diren, gorputz bakarra osatzen dutela. Eta euskal literaturaren sotanapeko martingalok ezagutzeko, gorputz hori ikertu beharko dute ongi gure ondorekoek, arimaz arima bakoitzari bere autopsia eginez.

Kontuz ordea. Ez gaitezen hasi orain, gaitz muttur honengatik, apezon arima osoa usteldu nahian. Ergelen batek hala usteko baitu. Baina ez. Ez dut deus Lekuonatarren kontra; alderantziz baizik: behin ere kitatuko ez dizkiedan poz eta zor haundiak. Baina, mesede guziak mesede, bihotzak sumatzen dituen argiprintzok urratzeko askatasunik gabe, zer litzake gizona? Eta zer egia, eta norena? ...

⁴³ *Idatz eta Mintz* 42, 23-38. orriak.

⁴⁴ Antonio Zavalaren Oheretan, *Herri literaturaz gogoeta*, 127-158. orriak.

253.- BARDABIOKO SEMIA NAIZ

Arantza-Aranaz
(Bortziriak - N)

Bar-da-bi — o — ko se-mi-a
naiz ta se-me for — tu — na ga-bi-
- a. A-ra-naz — ti — kan e — ka-rri
nu — en do-ti-a — re — kin an-dri-
- a. O-be zu — ki — an i — ku-si ez-
- pa — lu Bar-da-bi — o — ko a-ti-a.

1. Bardabioko semia naiz ta
Seme fortuna gabia.
Aranaztikan ekarri nuen
Dotiarekin andria.
Obe zukian ikusi ezpalu
Bardabioko atia.
2. Nere buruaz ez naiz oroitzen,
Zeran ez naiz bakarra. (zeren)
Azitzekuak or uzten ditut
Iru seme ta bi alaba.
Jaun zerukuak adi dezala
Aien amaren negarra.

1. Hijo soy de Bardabio,
hijo sin (bienes de) fortuna.
De Aranaz traje esposa
con dote: mejor le fuera
no haber visto la puerta
de Bardabio.
2. No pienso en mí mismo,
pues no soy único:
ahí dejo por criar tres
hijos y dos hijas.
El señor escuche
el llanto de su madre.

- | | |
|--|--|
| <p>3. Goizuetan bada gizon bat,
Deitzen diote "Trabuko".
Itzak ederrak, biotza faltso
Beinere etzaio faltako. (etzaizko)
Ark egin didan aberiguazioa (zidan)
Sekulan etzait antziko.</p> | <p>3. Hay en Goizueta un hombre,
apodado "Trabuco"...
Bellas palabras y corazón
falso no le faltarán.
Jamás podré olvidar la
delación que me hizo.</p> |
| <p>4. - Denbora batez oroitzen bayintz
Zer egin yuen Elaman,
Denbora artan ibiltzen yintzan
Yarraiki nikan Lesakan
Orain bano len egun yakien
Ni orain naguen atakan.</p> | <p>4. - Si recordaras lo que antaño
hiciste en Elama.
Entonces andabas...
.....en Lesaca
antes de ahora estarías
donde yo me hallo.</p> |
| <p>5. Goizuetako eskribu Jaunari:
- Eskarrikasko, barkatu;
Informaziuak onak diguzu
Iruñerako prestatu!
Mundu onetan edo bestian
Biarko dituzu pagatu.</p> | <p>5. Al señor escribano de Goizueta
- Muchas gracias, con perdón.
¡Bonito informe para Pamplona
nos has servido!
Ya las pagarás, en esta vida
o en la otra.</p> |
| <p>6. Zorriak eta arkukusuak
Arrotontxuak nagusi.
Denbora batez erran biartzuenak
Au biar nuela ikusi!
Zeruko Aita, lagun nazazu,
Ezin nengoake igesi.</p> | <p>6. Piojos, pulgas, ratones
(son los) amos.
¡Quién iba a pensar que me
había de ocurrir tal cosa!
Dios del cielo, amparadme;
de aquí no puedo escapar.</p> |

Infor. : Bolaños, natural de Aranaz, albañil, avecindado en Lecároz.

Loc. rec. : Aranaz

Fecha : 25 de febrero de 1912

Clas. : narrativa

Ref. : G.H., 1929, 1.«Un vecino de Bardabío (barrio de Goizueta, Navarra), fabricaba moneda falsa, de a 5 reales y de medio duro. Denunciado por un amigo suyo, apodado "Trabuco", se lo llevaron a la cárcel de Pamplona, donde murió. Elama es un caserío de Articuza, en las fuentes del Urumea. Según el cantor, esta canción dataría de doscientos o trescientos años (?). El la aprendió de los ancianos de su pueblo (Aranaz), que decían ser muy antigua. Azkue nos da otra versión, musicalmente diferente, con cuatro estrofas (CPV, nº 407). Nos cuenta que "Bardabioko semia", según fama, tenía una mina de oro, que fabricaba onzas de oro y que las pasaba a Francia. Estando en la cárcel le preguntaban: "Non da urrezko mina ori?" A lo que él respondía: "Nere auntzak egunero pasatzen dire minaren gainean". (¿Dónde está esa mina? -Mis cabras pasan a diario por encima de ella)». P. Donostia

No hallándole sentido al verso 4º de la estrofa 4ª, nos hemos abstenido de aventurar una traducción del mismo. Lo tiene, en cambio, en la estrofa correspondiente (2ª) de la versión de Azkue.

C.P.V., nº 407 (Goizuetan).

N.E.K.Z., nº 5.

V. Endechas y Elegías

407.-GOIZUETAN

Andante mosso

39. 

Goi - zu - e - tan ba - da
giz - on bat de - ri - tzen zai - o Tra - bu - ko Goi - zu -
ko. Itz - ak e - der - ak bi - otz - a fal - tso se - ku -
la etza - io pal - ta - ko, e - gin di - tu - an di - li -
jentzi - ak ber - ar - i zai - z - ko da - mu - ko. Itz - ak ko.

De Luis del Puerto, de Rentería (G). La aprendió en Ziburu (L).

Es canción compuesta por un falsificador de moneda, nacido en el barrio de Berdabio (donde nace el Urumea), jurisdicción de Goizueta (AN). Por delación de su confidente, apodado Trabuco, le encarcelaron en Pamplona, y encarcelado compuso esta endecha. Dicen que tenía una mina de oro, fabricaba monedas de onza y las pasaba a Francia. Ya en la prisión le preguntaban:

—¿*Non da urezko mina ori?* (¿Dónde está esa mina de oro?)

—*Nere auntzak egunero pasatzen dire minaren gainean* (Mis cabras a diario pasan por encima de la mina), — contestaba.

Su poemita es éste:

I. *Goizuelan bada gizon bat
deritzen zaió Trabuko.
Itzak ederak biotza paltso
sekula etzaio paltako:
egin dituan dilijentziak
berari zaioko damuko.*

II. *Ongi ongi oroitu adi
zer egin uen Elaman.
Difuntu orek izatu balu
yaraikilerik Lexakan,
orain baino len egongo intzan
ni orain nagoen atakan.*

III. *Nere andreak ekari zuen*
Aranaztikan dotea.
Obe zukean ikusi ezpalu
Berdabioko atea;
orain etzuen idukiko
dadukan pesalombrea.

IV. *Nere buruaz eznaiz oroitzen,*
zeren eznaizen bakara.
Azitzekoak or uzten ditut
bi seme ta iru alaba.
Jaun zerukoak adi dezala
oien amaren negara.

TRADUCCIÓN: I.—En Goizueta hay un hombre a quien llaman Trabuco. Nunca le faltarán hermosas palabras y corazón falso. Las diligencias (sin duda alude a la delación) que ha hecho se le han de pesar.

II.—Acuérdate bien de lo que hiciste en Elama (1). Si ese difunto hubiera tenido quien siguiese su causa en Lesaka, antes de ahora hubieras estado en el sitio en que estoy yo.

III.—Mi señora trajo de Aranaz la dote. Mejor le fuera si no hubiera visto la puerta de Berdabio; no hubiera tenido la pesadumbre que ahora tiene.

IV.—No me acuerdo de mí mismo, pues no soy único. Ahí dejo todavía por crecer dos hijos y tres hijas. El Señor del cielo oiga el llanto de su madre.

En el *Cancionero Selecto*, pág. 3, se puso *Goizuetan da gizon zakar bat* en vez de *Goizuetan bada gizon bat*, que es verso corto. También se corrigieron *biotza paltso* por *biotza gaizto*, y *sekula* por *bein ere*, como también *dilijentziak* por *asimasiak*. En alguna de las estrofas parecía que el cantor medía con este ritmo su melodía, que recuerda el de la vieja canción bizkaína *Santa Yageda*.

(1) En Elama, barrio también de Goizueta, Trabuco mató a un hombre.

Variante I

Andante mosso

Ne-re bu-ru-az ez-naiz o-roitzen ze-ren
 ez-nai-zen ba-kar-a. A-zi-tze-ko-ak or uz-
 ten di-tut bi se-me tai-ru a-la-ba: Jaun ze-
 ru-ko-ak a-di de-za-la oi-en am-a-ren ne-gar-a.

Esta variante creo habérsela oído al mismo Luis del Puerto.

BERDABIYO'REN KANTAK (1)

1

Berdabiyo'ren xaldiyak
Lau anakak diñu txuriyak.
Salto batian irago zuen
Zazpi estatuko esiya;
Beste bat igaro balu,
Seguru zuen biziya.

El caballo de Berdabiyo
Tiene blancas las cuatro patas.
De un salto pasó
Un seto de siete estadios;
Si hubiera pasado uno más,
Tenía segura su vida.

2

Nere andriak ekañi zuen
Aranaz'tikan dotia.
Obe zukian ezpalu ikusi
Berdabiyo'ko atia;
Orain etzuen ark idukiko
Dadukan pesalunbria.

Mi mujer trajo
Dote, de Aranaz.
Mejor le estuviera si no hubiese visto
La puerta de Berdabio;
Ahora no hubiera tenido
La pesadumbre que tiene.

3

Neriak ez nau ainbeste oroitzen;
Bañan ezpainaz bakaña...
Azitzekuak an utzi ditut
Bi seme ta iru alaba.
Jaun zerukuak adi dezala
Ayen amaren negaña.

Lo mío no me apena tanto;
Pero es que no soy solo...
Allí he dejado por criar
Dos hijos y tres hijas.
El Señor del cielo oiga
El llanto de la madre de ellos.

4

Goizuta'n ba'da gizon bat;
Deitzen diyote Trabuko;
Itzak eder ta biyotza paltso
Añi etzayo paltako...
Egiña dagon delijentziya
Berari zayo damuko.

Hay en Goizueta un hombre;
Le llaman "Trabuco";
Palabras hermosas y corazón falso
No le faltará...
La diligencia que está hecha
A él le pesará.

(1) "Los cantares de Berdabio". Dice la tradición que fue un falsificador de monedas de oro, que expió su culpa en las prisiones de Pamplona, donde durante un año compuso un cantar de trescientas sesenta y cinco estrofas, una estrofa por cada día.

5

Ongi-ongi oroitu ari
Zer egiñ uen Elama'n...
Jañraikin onikan izan balu
Difuntu oñek Lesaka'n,
Ik eñek egon bearko yuen
Ni orain nagon atakan.

Acuérdate bien-bien
Qué hiciste en Elama...
Si hubiese tenido buen procurador
Ese difunto en Lesaca,
Tú mismo hubieras tenido que estar
En el portillo en que estoy yo.

LABURDI

KANTA TXORUAK (1)

1

Pikak eguak xuri-ñabar; (bis)
Amorantiak ba'diñut amar.
Ni batek ba-narama bigar, (bis)
Pena duyenak in beza nigar.

La picaza (tiene) las alas blancas-
Tengo diez amantes. [pintas;
Si mañana me lleva uno,
Llore el que tenga pena.

2

Bortañuan eder giltza; (bis)
Amorantiak ortxe dabilta.
Nik ba'dizut baten itza: (bis)
Zeñek beriak xerkatu bitza.

Hermosa (está) la llave en el postigo;
Ahí andan los amantes.
Yo tengo palabra de uno:
Cada uno coja el suyo.

3

Itsasua laño dago (bis)
Bayona'ko ba'araño;
Nik maite zaitut maitiago (bis)
Txoriyak beren umiak baño.

El mar está nublado
Hasta la barra de Bayona;
Yo te quiero, te quiero más
Que el pájaro a sus crías.

(1) "Cantares loquillos". Así los calificaba el que nos los dio a conocer (el *bertsolari* Lexoti de Oyartzun); calificativo que él extiende a todos los del género amatorio.

sillas de plata, con tal de que se volviese a su casa caminando para atrás, sin volver la vista hacia adelante.

La muchacha, como buena trepadora, aceptó la condición. Y se puso a caminar para atrás. Y, en efecto, caminaba perfectamente, a pesar de lo empinado de la cuesta y lo escarpado y estrecho de los caminos sobre el abismo. Y la silla le seguía detrás ella sola. Y llegó a Unaileku. Y desde allí fue caminando muchísimo mejor. Siempre para atrás. Y la silla siguiéndola, como un perrito.

Pero, apenas llegó al portal de su caserío, al ir a dar la vuelta al pestillo de la puerta, con el gran gozo de su rica adquisición y el pensamiento de la sorpresa que iba a dar en casa, volvió la cabeza hacia la puerta. Y, adiós mi silla de plata ;no la vió más!

TESOROS LEGENDARIOS

De tesoros que se ocultan en las entrañas del gran macizo granítico, hay también referencias legendarias.

Se asegura que en la pradera debajo de Errolbide hay una mina de oro puro, cuya bocamina está tan a flor de tierra, que todos los días la tocan con su hociquito las ovejas del caserío Portuberri, pero que al propio tiempo es tan oculta a los ojos de los hombres, que hasta la fecha nadie ha dado con ella. Solo un hombre poseyó su secreto. Y de él se añade que con el rico metal acuñaba moneda, y con aquella moneda iba su hija al mercado de Bayona a realizar compras. Y que una vez llevaba la moneda tan recién acuñada, que se le notaba el calor del crisol. Y que, como alguien le hiciese una observación sobre aquel calor tan extraño de la moneda, ella contestó inocente, que su padre la había acuñado y que acuñaba cuantas quería... Pero no se supo más.

* * *

Un reflejo de la misma Leyenda de la mina de oro, existe igualmente en el Valle, aunque no localizada en la zona de las peñas, sino esta vez en el lejano caserío de Berdabío, entre Artikutza y Goizueta.

La Leyenda esta vez tiene un fondo histórico reciente (siglo XIX); pero la interpretación del hecho histórico es legendaria, eco, como decimos, o reflejo de la misteriosa mina de la pradera de Errolbide.

no sin antes haber hecho a su amigo la indicación más aproximada que pudo de la situación de la bocamina... Durante la tormenta había podido escuchar el canto del gallo del lejano caserío Berdabío...

En efecto, era la mina —dice la Leyenda— de donde Berdabío extraía el oro puro para sus famosas acuñaciones. Pero ni de boca de éste se supo nunca el lugar de aquella preciosa mina, ni por la indicación del buscador dominguero pudo sacarse nada.

Y así quedó todo en secreto, hasta hoy.

* * *

Nada recogemos aquí de la Leyenda erudita, referente a las Guerras Cantábricas, y según la cual fue un oyartzuarra, un Lartáun, el *buruzai* de las tropas cantábricas; que las capitaneó no sólo en el asedio del monte Hernio, sino también en el famoso duelo del Trans-Tíber en Roma, donde, a consecuencia de la paz que se siguió, nuestro Lartáun casó con matrona romana, dando lugar al linaje de los Laterani, quienes, andando el tiempo cedieron el solar de su casa para la edificación de la gran Basílica del Salvador o San Juan de Letrán... Leyenda erudita y de data no muy antigua, siglo XVI, y desde luego, nada popular (3), y como tal, muy poco apropiada para nuestro propósito.

Y con tanto, pasamos ya, de la Prehistoria y la Leyenda, a la Historia de nuestro Valle.

(3) Tiene sin embargo, esta leyenda un elemento eminentemente popular en el famoso grito "*sabeletik!*" que se dice que el Lartáun dio a sus muchachos en el duelo del Tíber cuando vio que los soldados romanos venían acorazados y que las lanzadas de aquellos no los herían en el pecho, por lo cual insinuó a los suyos la lanzada al vientre, *sabeletik!* Elemento eminentemente popular.

BERDABIOREN BERTSOAK

1.-SAROE ERREKAKOA

- 1.-Nere andriak ekarri zuen
Aranaztikan dotia.
Obe zukian ikusi ez balu
Berdabiyoko atia;
gaur etzükian ark edukiko
dadukan pesalunbria.
- 2.-Berdabiyoko semia naiz ta
adios auzo nobliak;
pena aundirik ez bait du utziko
ni emendikan joatiak;
negarra pranko egingo bait du
nere emazte tristiak.
- 3.-Neriak ez nau ainbeste oroitzen
Bañan ez naiz ni bakarra.
Azitzekuak an utzi ditut
bi seme ta iru alaba.
Jaun zerukuak adi dezala
oien amaren negarra.
- 4.-Goizutan bada gizon gaixto bat
deitzen diote Trabuko;
itzak eder ta biyotza paltso
beñiere etzaio faltako.
Egin dituen dilijentziak
berari zaizka damuko.
- 5.-Ongi bai ongi oroitzen al aiz
zer egin uen Elaman?
Jarraikin onik izandu balu
difuntu arek Lesakan,
gaur berak egon bearko zuen
ni orain nagon atakan.
- 6.-Martin Joxepe Aranaztarra
zegoen gizon prestua.
Diximuluan botatzen zuen
aldiyan bere puntua.
Aber lenago ote nekien
moldetariyan kontua.

Oharra: Oartzungo Sarobe (“Sau”) errekatik, gure ama Diburtxi Berasategi eta amona Kontxexi (Saroe errekekaoa) Gaztelumendi-ren bidetik (osaba Luis Gaztelumendik ere kantatzen zituen) jasotakoa; baina ez dago garbi amona Kontxexik bere ama Ines Berasategi-rengandik, (Behin berrikoa, Belakon jaiotakoa eta Mari Juana Zugarramurdi Berdabiokoaren kuniñatarendandik), edo aitarendandik, Manuel Gaztelumendi, ikasi zuen. Beraz, arazoa erabaki gabe, Sarobe errekekao izena ematen dio Juan Marik. (Ikus fotokopia “Oartzun 1981” urtekarian, Juan Mari Lekuonaren artikulua).

2.-OKILEGIKO

- 1.-Berdabiyoren xaldiyak
lau anak ditu txuriyak.
Salto batian irago zuen
zazpi estatuko esiya;
beste bat igaro balu
seguru zuen biziya.
2. Nere andriak ekarri zuen
Aranaztikan dotia.
Obe zukian ezpazu ikusi
Berdabiyoko atia;
orain etzuan ark idukiko
dadukan pesalunbria.
- 3.-Neriak ez nau ainbeste oroitzen
bañan ez naiz ni bakarra.
Azitzekuak an utzi ditut
bi seme ta iru alaba.
Jaun zerukuak adi dezala
ayen amaren negarra.
- 4.-Goizutan bada gizon bat;
deitzen diote Trabuko;
itzak eder ta biyotza paltso
arri etzaio faltako...
Egiña dagon dilijentzia
berari zaio damuko
- 5.-Ongi-ongi oroitu ari
zer egin uen Elaman...
Jarraikin onik izan balu
difuntu arek Lesakan,
gaur eurrek egon bearko yuen
ni orain nagon atakan.

Hendaia, 1997/3/1

Kaixo Patziku:

Ez didazu poz txikia eman zure kartarekin eta, batez ere, zure aurkikuntzekin. Biba zu eta, gurean esango gendukeen bezela, "zu etxe(ra)ko". Hartu bezain laister, gogoz hasi nintzen irakurtzen eta txunditurik gelditu nintzen, bai egin duzun lanagatik --ordu-pila bat, eskarmentuz dakidanez-- eta egin dituzun aurkikuntzekin. Bidaltutako bi agiriak patxaraz eta atentzio haundiz irakurri ditut eta, %tik 95ko konfiantzarekin --estadistikan esan ohi den bezela-- Berdabio-rekin topo egin duzula uste dut. Aztarna sendoak eta seguruak dira, dudarik gabe. Duda guztiak deusezteko testigutza bat beharko litzake baina, hori eskuratuko ez degunez, zuk aurkitutakoa nahikoa dela derizkiot, "Berdabioko monetaria" Joseph de Etchagarai" zela baieztatzeko (konturatu al zera Etchagarai idazteko era Iparraldeko era dela? Iparraldekoa ote genduen gure Joseph? Bera ez baina zuk, 3.1.-puntuari jasotzen duzun bezela, bere aita Juanek seme natural bat izan zuen: "Don Juan havido de María Echagarai en la Baja Navarra", beraz hartuemanak bazituela han) eta, gizon bakarrentzat lan haudixkoa zanez, "consortes", laguntzaileak alegia, izan zituela.. Dena dela, nahiz eta beste lau laguntzaileen abizenak ere garbi azaldu, ez dut uste bide horretatik jotzeak merezi duenik; famili-giroak ez baina ofizioak sortutako "ekintza" danez gehienbat monetagintza; hain zuzen, Elamako olá famatuetan sortutakoa. Ez pentsa gero hain erreza denik moneta-moldeak prestatzea hain txikiak eta finak izanik; ez eta ere metala urtutzeko labeak eta arragoak eskura edukitzea eta hori guziaz Elaman edukiko zuten. Beraz abizenak eta familiak aztertzeak ez du sentidu gehiegirik.

Horra nere lehenengo inpresioak eta iritziak. Dena dela lasaiago etorriko naiz puntuak garbituz eta zure eskaeren erantzunekin. Bien bitartean zuk bidaldutako dokumentuak pasa dizkat Joan Mari anaiari eta honentzat ere poz handia izan da; batez ere, Berdabioren bertsuak 1750 ingurukoak direla ziurtatzea, --Pernando Amezketarra (1764-1823), baiño 50 bat urte zaharragoa-- aurkikuntza garrantzitsuztat jotzen du. Baina puntu horretaz eta beste askotaz mintzatzeko aukera izango dugula pentsatzen dut.

BESTE PUNTUAK:

1.-OSABAREN idaz-lanak: Zuk diozun bezela hil aurretik, Kardaberaz taldearen eta Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz, berak sailkatuta eta garbira pasata atera ziran "Idaz-lan guztiak" izenarekin 12 liburu. Azterketa bat egin ondoren, Juan Marik dio lanen batzuk falta dirala. Dena dela ia denak eta garrantzitsuenak hor daude. Nola eskuratu? Pentsatzen dut Kardaberaz-ek Tolosan daukan depositoa egongo dirala baina, behar bada, erosten ibili gabe osatuko ditugu gehienak etxean. Neronek ere badauzkak bi: 1. "Ahozko literatura" izenekoa eta 2. "Eusko Etnografia" izenekoa. Gaurtik zure esku daude; ea nola konpontzen geran zuregana bidaltzeko. Juan Marik ere badituela badakit. Elkar hartzea falta zaigu.

2.-BERDABIOren bertsuak: ahozko literatura danez, bertsio desberdinak dabiltz han eta hemen bai musika-aldeetik eta bai hitzen aldeetik.

-Hitzak: Guk erabiltzen ditugun bertsioak Juan Marik "Oiarzun" urtekarian argitaratu zituen. Ikus fotokopia. Familian(amarengandik) ikasi eta buruz dakiguna Juan Marik "Saroe Errekakoa" bezela bataiatu zuena da. Bestea, osaba Martinek (Lekuona) Okilegin Alduntzin Bordako Benitori jasotakoa da. Alboan dijoazkitzu bi bertsioak azkenengo oharrekin. Aita Donostia-rena eta Azkuena ezagutzen dituzula pentsatzen dut. Zein da jatorrena? Zein da osoena? Zeinek eta nola erabaki? Puntu aipagarriak: 1) monetaren berririk ez dutela ematen bertsoek Sarobe errekakoak izan ezik, beraz ahozko informazioa dela Azkuek dioena; 2) Lesakako aipamena, zure aurkikuntza ezker, nahiko garbi dago: elizan lanparen lapurreta egin zutela; 3) Benitoren lehenengo ahapaldia, neurria ere desberdina duenez, beste bertso batzuetatik hartua dirudi; 4) Hiru puntuko bertsoak direla; beraz ohitura zaharra eta zabaldua hiru puntuko bertsoak egitea zela.

-Musika: Badakit txistularia zerala eta musika maite duzula. Hortaz, Agustin Mendizabalek "Oiarzun" urtekarian plazaratutako artikulua bidaltzen dizut. Etxean kantatzen dugun bertsioa, Mendizabalek pentagraman jarritakoa, zehaztuta bidaltzen dizut. Hiru bertsioetan, aita Donostik jasotakoa asko bereixten da beste bietatik, batez ere modu-aldeetik (nagusia) eta bai eta ere ritmo aldeetik. Nahiko harrigarria egiten zait trajedi bat kantatzeko era hau. Baztango kutsua ote? Azkuek jasotakoa Laboagandik ikasi genduen eta Sarobe errekakoa kantatzen genduentzat nahiko arraroa gertatu zitzaigun, batez ere lehenengo eta hirugarren esaldiak. Bigarregoa eta gurea antzekoak dira, puntiloa izan ezik. Ritmo aldeetik esaldien artean batasun falta nabari zaio. Hala ere jakingarriena, "Agur, oi izar maitia" Dufau eta aita Donostiak Laburdin jasotakoarekin duen antza da; beraz Laburdi aldera eramaten gaituela. Gureak, berriz, osotasun bat eskeintzen du ritmo eta modu-kontuan hasi eta buka eta sentimentu haundiko kantua da. Goizueta-aldean ze doinu erabiltzen duzute? Gustatuko litzaidake jakitea. Alduntzin Bordako Benitok erabiltzen zuena ez da guregaitano iritxi.

-Bertsolaria. Nahiz eta gaizkilea, kartzeleratua behintzat, Joseph Etchagarai izan, ez dut uste besterik gabe bertsolaria ere bera dela esan ditekunik. Gure gurasoen garaian ere jakina zen Txirrita zenak bertsoak jartzen zituela besteak eskatuta eta esandako kontuekin. Hala ere, izendatzea konbeni danez, besterik ez bada noizkotsuak diren adierazteko, izen hori erabiltzea konbeni dela derizkiot, argi gehiago egiten ez den bitartean. Hala ere, nik behintzat, ez nuke azterketa bukatutzat emango: musika, esaerak, puntuak eta abar. Hain zuzen, Etchagarai Iparraldekoa izan litekela jakitea ez da ahaztu behar. Ez ote legoke Joseph-en aurrekoak nondik datozen aztertzerik? Badakigu haren aita Juan Berdabiokoa zela eta honen aita, hau ere Juan Goizuetan, enterrarua zela. Baina non jaioa? Jakiterik bai al dago? Ez ahaztu lehen esan duguna: "y otro hijo natural (Josephen anaia) havido de Maria Echagaray (abizen berdina; familikoa?) en la Baja Navarra llamado Don Juan que reside en la ciudad de Mendoza reino de Indias hace ya veinte y un años (1714-21=1693an jaioa beraz. Non?). Ez ahaztu, nola nahi ere, musikaz hitzegiterakoan, Iparraldeko kutsua aitatu dugula.